UNITATE DIDAKTIKOA



Denok ditugu gaitasun ezkutuak

Denok gordetzen dugu enigmaren bat

Denok daramagu barruan superheroi bat

SUPERHEROIA

EL PERRO AZUL TEATRO

Actor-manipulador **Fernando Moreno** Dirección y dramaturgia **Jorge Padín** Títeres y máscaras **Carlos Pérez** Música original **Borja Ramos** Voz en off **Samuel Viyuela** Diseño de vestuario **Martín Nalda** Diseño de iluminación **Juan Berzal** Escenografía **Juanjo Bañuelos** Atrezzo y utilería **Rubén Bañuelos** Réplica de máscaras **David Azpurgúa** Sastrería **Amparo Cámara** Técnico de iluminación **Carlos Cremades** Equipo de iluminación **AGT** Grabación de voz en off **Nada Producciones** Fotografía **Rafa Lafuente** Diseño gráfico **Borja Ramos** Audiovisual **Cráneo Pro** y **Diego Solloa** Asistente en gira **Susana Baldor** Relaciones públicas **Begoña G. Hidalgo** Producción **El Perro Azul**

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, hezitzaile, pedagogo, psikologo eta gurasoek gero eta argiago dute beharrezkoa dela gure umeen balioak eta sentimenduak heztea. Gizarteak, eta batez ere gure txikien arreta osoa erakartzen duen telebistak, ez dute gehiegi bultzatzen besteenganako laguntza eta lankidetza, sentimenduetarako lehengaia. Superheroien gaia lantzeak, euren buruak ezagutzeko, gainditzeko, ahulagoak diren beste batzuei laguntzeko, garrantziaz jabetzen lagunduko die, enpatikoak, solidarioak izanik, guztien ontasuna sustatuz. Horrek sortzen duen gogobetetze eta poztasun sentsazioaz jabetzen ere lagunduko die.
Superheroien bizitza ez baita erraza, hau da, egoera zailei egin behar diete aurre, eta batzuetan ezin dituzte horiek gainditu, batzuetan zalantzak dituzte hartu beharreko erabakien inguruan. Euren ezaugarria goi mailako idealak edukitzea eta besteak babestea da, sarri askotan euren interesa baztertuz, gainerakoei zerbitzua eskaintzeko eta haien ontasuna bilatzeko. Bultzatzen dituena ez da aintzatespena edo dirua. Badakite supergaitasuna dutela, eta horrek gainerakoen zerbitzura jartzera "behartzen" ditu, giza-koherentzia hutsarengatik. Horrek guztiak, norberekoitasuna gainditzera eramaten ditu. Batzuek gatazkaren barruan bizi dira, beraien benetako izaera ezkutatu behar dutelako, eta batzuetan bizimodu erosoari uko egin beharko diotelako. Hori guztia dela eta, superheroien existentzia aberatsa da aukerei dagokienez, eta abenturaz eta proba zailez beteta dago. Eta hori oso erakargarria da.

HELBURUAK

· Norberaren ezaugarri pertsonalak identifikatzea: Alderdi indartsuak eta ahulak.
· Elkartasunaren eta norberaren eta inguruko guztien eskubideen balioa aitortzea.
· Pertsonen duintasuna eta aniztasuna defendatzearen alde aritzea.
· Sentimenduak, emozioak eta nahiak hainbat lengoaia erabiliz adieraztea: ahozkoa, idatzizkoa, plastikoa, antzezpena, etab.
· Istorio bat egitea Superheroiengandik ikasitakoan oinarrituta.
· "Superhéroe" emanaldiaz gozatzea, pertsonaiaren eta norberaren arteko gertutasuna baloratuz.
· Norberaren emozioekin, interesekin eta gustuekin erlazionatzeko gaitasuna garatzea, horiek irudikatuko dituen superheroi bat sortuz.

JARDUERAK

EMANALDIAREN AURRETIK

SUPERHEROIAK

Entzun, hitz egin:
Zer da superheroi bat? Ezagutzen ditugun superheroiak

Ezagutu:
Ezagunen (Superman, Spiderman, Batman, etab.) eta hain ezagunak ez diren beste batzuen (Green Arrow, Antman, Los cuatro fantásticos, Mujer Avispa, Júbilo, Miss Marvel, Batwoman, Capitán América, Capitán Trueno, Robin III, Shazam, Ultraman, Redtornado, etab.) adibide batzuk

Ikusi:
Filmak edo/eta bideoak eta komikiak.

Aztertu:
· Zein dira Superheroiaren ezaugarriak?
. Jatorria, familia, aurrekariak
. Supergaitasuna
. Objektu magikoa
. Nori laguntzen dien
. Noren edo zeren kontra aritzen den
. Zertarako egiten duen
. Bikoiztutako nortasuna
· Sustatzen dituen balioak

AMESLARI BAT NAIZ

Ziurrenez, liburu edo komiki bat irakurri, film bat ikusi edo jolasen batera jolastu eta gero, protagonista zu zeu zinen istorioren bat asmatu izan duzu. Istorio horretan egin duzun ekintzaren batek zeure eta maite dituzun pertsonen miresmena sortu du: senideak, adiskideak, irakasleak.
Egin gogoeta une batez zure gustuei, ezaugarriei, nortasunari... ondo egiten dituzun gauzei buruz.

Asmatu, kontatu eta idatzi amestu dituzun gauza ikaragarri horiei erantzungo dien istorioren bat. Zugandik asko dago istorio horietan.

PROPOSAMENA. Aste honetan, besteen alde zerbait egitea proposatu zeure buruari, ez da gauza garrantzitsu bat izan behar, horren beharra duenari lagunduko dioten gauza txikiak baizik: komunera lagundu zu baino txikiago bati, lasaitzen saiatu negarrez badago, jostailu bat utzi, gurasoei edo aitonamonei lagundu etxeko lanen batean, ikaskideren bati lagundu ulertzen ez duen klaseko lanen batekin, lagunen baten alde agertu norbait min egiten ari bazaio, etab.

Konpartitu zure ikaskideekin:
· Zer egin duzu?
· Nola sentitu zara egiterakoan?
· Nola erreakzionatu du zure laguntza jaso duen pertsonak?
· Zer lortzen duzu besteak lagunduz?

ANTZEZLANA

Behatu kartela:
· Zer iradokitzen dizu?
· Non dago pertsonaia?
· Zer egiten du?
· Begiratu bere aurpegiari, Zer ikusten duzu?
· Zer esan nahi dute zuretzat esaldi hauek:
"Denok ditugu gaitasun ezkutuak"
"Denok gordetzen dugu enigmaren bat"
"Denok daramagu barruan superheroi bat"

EMANALDIAREN ONDOREN

ANTZEZLANAREN ULERMENA

1. Eragiten dituen sentimenduak, emozioak eta inpresioak.
2. Eszenografia
3. Antzezpena
4. Antzezpenetik gehien atsegin izan duzun pertsonaia
5. Pertsonaia nagusiarengana hurbilduko gara: Nor da? Norekin bizi da? Zein da bere egoera familiarra, ekonomikoa?
6. Zer atsegin du egitea bakarrik dagoenean? Nola eta zertan jolasten da?
7. Zein da berarentzat pertsona garrantzitsuena? Nolakoa da pertsona hori?
8. Zerk ematen dio balioa pertsonaiari?
9. Zelan laguntzen dio dantzariaren pertsonaiak?
10. Zer da erreala?
11. Zer da irudimenekoa?

AUKERATU ZURE SUPERHEROIA

Hitz egin ezagutzen dituzun Superheroi guztiei buruz. Zein da deigarriena zuretzat? Zergatik? Zer da erakartzen zaituena? Baloratu zuk daukazun edo edukitzea nahiko zenukeen gaitasunen bat ote daukan. Konpartitu zure kideekin.

Nire Superheroia sortu. Isilpean, begiak itxita agian, gidatutako bisualizazio saioa proposa dezakegu. Bertan, sortu nahiko luketen Superheroia imajinatzea eskatuko diegu, ondorengo galdera hauek edo beste batzuk planteatuz eta isilunea utziz horien artean, bisualizazioa errazteko:

Ze izen du? Nola sortu da? Non jaio da? Non bizi da? Zer egiten du superheroi gisa ari ez denean? Nola janzten da? Zein da bere supergaitasuna? Nor salbatuko luke? Zeretik edo norengandik? Ba al dago bilaurik? Zer nahi du? Badaukazu zure Superheroia.

Orain sar zaitez berarekin abentura batean. Emaiozu konpondu beharreko gatazka bat. Zeu zarela pentsatu eta gozatu zure abenturaz.

Denok daramagu Superheroi bat barruan!

Idatzi imajinatu duzun istorioa. Komikian egiteko proposamena ere egin dezakegu.

GORPUTZ ADIERAZPENA

Mugimenduak asmatu. Musikaren bat erabiliz, Star Warseko Martxa Inperiala, adibidez (interesgarria da martxa motakoa izatea), superheroiaren mugimenduak asma ditzakegu (agurrak, ekintza egin aurreko mugimendua, etab.), banaka edo 3 edo 4 ikaslek osatutako taldeetan. Mugimendu horiek taldeko gainerako kideek errepikatuko dituzte. Interesgarria izan daiteke asmatutako soinuren bat sartzea.

Superheroietara eta bilauetara jolastu. Polizien eta lapurren antzera, efekturen bat sartuz supergaitasunekin (adibidez, objektu magikoarekin besoan ukitzen bazaitut, besoa geldik geratuko zaizu, zangoan ukitzen bazaitut gorputz osoa geratuko zaizu geldik...). Bizia salbatzen duten Superheroiak ere sar daitezke jolasean.

Zirkuituak. Hainbat material erabiliz, oztopoak saltatzeko, arrastaka ibiltzeko, soken edo bestelako objektu batzuen gainetik edo azpitik igarotzeko, ukitu barik, orekak egiteko, soka gainean egiten direnen antzekoak, etab.

PLASTIKA

Bere Superheroiaren jantzia eta osagaiak diseinatu eta egin. Betaurrekoak edo maskara ezkutatzeko, objektu magikoa supergaitasunerako, oinetakoak kustomizatu, logo edo zeinu bat egin, etab. Horretarako birziklatutako materialak erabili ditzakete.

Makillajea. Norberaren Superheroiak eramango duen makillajearen diseinua prestatu.

Maskara, eskaiolazko benda erabiliz. Orrialde honetan, maskara egiteko jarraibideak aurkituko dituzu. Oso erraza da.

Ondoren, euren gustura apain dezakete, eta antzezlanaren "estiloan" antzeztu.